

DONOSTIAN ENOGASTRONOMIA ARLOKO AISIA ETA TURISMO SEKTOREKO ENPRESEN HAZKUNDERAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK EUROPAR BATASUNAK (NEXTGENERATIONEU) FINANTZATUTAKO BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN

ATARIKOA

Donostiako Udalak tokiko erakundeek aldetik inbertsio-jarduketan finantzazioan parte hartzea eskatu zuen, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko 2. azpi-neurriaren 1. inbertsioko 14. osagaiaren esparruan, Europar Batasunaren Berreskurapenerako Tresnaren barruan Covid-19 birusetik eratorritako pandemiaren ondorioz sortutako krisi ekonomiko, sozial eta humanitarioaren berreskurapena babesteko.

Donostiako Udalaren dirulaguntzaren eskaeran, eta Laguntza Emateko Estatuko Turismo Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 19ko Ebazpenean, zeinaren bidez Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko 1. inbertsioko 14. Osagaiaren esparruan autonomia erkidegoetarako tokiko erakundeek aldetik inbertsio-jarduketak finantzatzera bideratzeko kredituaren banaketa eta horren ondoriozko banatzerako irizpideak ezartzen dituen 2022ko abenduaren 14ko Turismo Arloko Konferentziaren Akordioa argitaratzen baita, eta Euskadiko Administrazio Orokorraren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez, eta Donostiako Udalaren artean, Donostian esperientzia enogastronomiko jasagarri eta berritzailea, 2022ko Turismo Enogastronomikoko Plan Nazionalean jasotzen diren jarduketak, Jomuga duen Turismo Iraunkortasunerako Plana egikaritzeko Hitzarmenean, Donostiako Udalak, Jarduerak eta Ardatzak arloen barruan, egiteko jarduerak jasotzen dira.

Lehiakortasunaren esparruko jarduketei buruzko 4. Ardatzaren barruan, ekintzailatza jarduketa kokatzen da, esperientzia gastronomikoa oinarri duten ekintzailatza-proiektu berritzailea hobetzeko, diruz lagun daitekeen jarduera modura, azpi-jardueraren esparruan, honako dirulaguntzak jasoz: Esperientzia gastronomikoan oinarritutako proiektu berritzaileen Ekintzailatza Programa / Laborategia.

Sortutako enpresa berriei laguntza eman eta sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko xedez, Donostia Sustapenak enogastronomiaren esparruko aisia eta turismoaren sektoreko enpresak lagundu nahi ditu beren ibilbidearen lehendabiziko urteetan, horiek abian jarri eta hazteko inbertsioetara bideratutako laguntza ekonomikoak emanez.

Hori dela eta, tokiko ekintzailatzaren aldeko apustuaren ildotik, aisia eta turismoaren sektoreko enpresen hazkunderako dirulaguntzak artikulatzen dira, sortutako enpresak sendotu eta haz daitezen beharrezkoak diren tresna eta baliabideekin hornitzeko asmoz, aldi berean, tokiko onurari mesede eginez.

Helburu horrekin, Donostiako Udalak ez du programa hori modu egokian garatzeko behar adina bitarteko pertsonal eta material; beraz, erakunde kolaboratzaile bat izendatzea komenigarritzat jo da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 12. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Artikulu horretako 2. atalean xedatzen denez, erakunde kolaboratzaileztat hartu ahal izango dira Herri Administrazioen partaidetzapeko (erabat edo gehienbat) merkataritza-sozietateak.

Donostia Sustapena Sozietateak 2023an hirian berrikuntza arloko erreferente bilakatzea eta Donostiako Berrikuntza Agentziaren eginkizuna betetzera bideratutako estrategia eta kudeaketa-eredu berriranzko trantsizio baten aldeko apustua sendotu du. Horrek berekin dakar pertsonen, enpresen eta proiektuen bidelagun izatea, pertsonalizazioa, kalitatea eta begirada estrategikoa ardatz hartuta, eta hiriko berrikuntza arloko ekosistema osatzen duten eragile publiko zein pribatu ezberdinekin lankidetzat aritzearen aldeko apustu argi batekin.

Bilakaera horrek, adierazitako helburuak betetzearekin batera, tokiko ekonomia-ehunean modu zeharkakoan aplikatutako berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko bere apustu estrategikoaren barruan, ostalaritzaren esparruan hainbat ildotan lan egiteko aukera eman du 2023an, sektoreari aurrez aurre dituen erronkekin bat datorren laguntza emateko xedez.

Horrela, sektoreak, 2023 Bultzada Planaren testuinguruan, 400.000 eurotik gorako laguntzak jaso zituen.

Aldi berean, sektoreko 140 enpresa baino gehiago zerbitzu edota laguntzen onuradun izan ziren, beren lehiakortasuna indartzeko aukera eman ziena. Era berean, esparru horretan sektorearekin sortutako jarduerak 20 enpresa-proiektu berri baino gehiago sortzea ahalbidetu duen, 220 lanpostu berriekin batera.

Tokiko ostalaritza, enpleguan duen garrantziagatik, bere dinamismoagatik eta hiriko ekonomia-jardueraren sorreran egiten duen ekarpenagatik, bisitariak erakartzeko duen gaitasunagatik ez ezik (aldi berean, beste sektore batzuetarako diru-iturri), estrategikotzat jotako sektorea da, ez alferrik 1.460 establezimendu ditu eta 8.689 enplegu sortzen ditu (DIRAE, EUSTAT, 2023). Funtsean mikro enpresa txiki eta ertainekin (10 langile baino gutxiagoko enpresak) osatutako enpresa-ehun batekin, hiriak horien hazkundea bultzatzeko aurrekari egin beharko dio aurre.

Sektoreak, gaur egun, orainaldian eta etorkizunean jorratzeko zenbait erronka ditu aurrez aurre, esate baterako, turismo gastronomian gakoak diren beste jomuga batzuen lehiakortasunaren igoera (tokiko lehiakortasuna areagotzera behartzen duena), edo belaunaldi arteko txandarik eza, hala Michelin kategoriaren barruan nola establezimendu tradizionalen barruan.

Testuinguru horretan, beraz, hiriak tokiko gastronomian lehiakor bereizle izaten jarraitzearen (berezia, benetakoa, kalitatezkoa, berritzailea eta Donostiako narratiba batekin) erronka du aurrean, erreferentzia modura duen posizioari eusteko.

Aurrekoa kontuan izanik, Donostia Sustapenak dirulaguntzak eta laguntzak kudeatzen zein Europako Funtzak kudeatzen esperientzia zabala du, eta baita horretarako

bitartekoak ere. Horri bere espezializazio-maila gaineratzen bazaio, Erakunde kolaboratzailearen funtzioak burutzeko erakunde egokia da.

Programa hau **DONOSTIA, AISIA ETA GASTRONOMIAKO ESPERIENTZIA JASANGARRI ETA BERRITZAILEA** Jomugako Turismo Iraunkortasunerako Plana (JTIP) proiektuko jardueren barruan dago kokatuta, 2022KO Turismo Enogastronomikoko Plan Nazionalen kokatutako jarduketak, “Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan egikaritua eta Europar Batasunak (Next Generation EU) finantzatuta”.

Presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 61.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, non ezartzen baita “Europako funtsekin finantzatu daitezkeen dirulaguntzen oinarri arautzaileek dirulaguntzen deialdia hartu ahalko dute barnean”, 2024ko ekitaldirako dirulaguntza hauen oinarriak eta deialdiak elkarrekin onartzen dira.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

1.- Erregulazio honen helburua da **dirulaguntzen** 2024ko ekitaldirako oinarri arautzaileak finkatu eta deialdia egitea, lehiarik gabeko norgehiagoka erregimenean, Donostia hiriko enogastronomiaren esparruko aisia eta turismoaren sektorean 2020ko urtarrilaren 1etik 2025ko martxoaren 31 bitartean sortutako eta sendotzeko eta hazteko gastuak edota inbertsioak egin dituzten enpresa berriei laguntza emateko.

2.- Dirulaguntza modura ulertuko da, funts publikoko dirua zuzeneko kontraprestaziorik gabe erabiltzea, Oinarri hauetako 9. artikuluan diruz laguntzeko modukotzat kalifikatutako inbertsioak eta gastuak egiteko.

3.- Oinarri hauen babesean ematen diren dirulaguntzak **DONOSTIA, AISIA ETA GASTRONOMIAKO ESPERIENTZIA JASANGARRI ETA BERRITZAILEA** Jomugako Turismo Iraunkortasunerako Plana (JTIP) proiektuan kokatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan (2021/241 Erregelamendua EB), 2. azpi-neurriko 1. inbertsioko 14. osagaiaren barruan, egikaritutako eta Europar Batasunaren Next Generation EU funtsekin finantzatutako 2022ko Turismo Enogastronomikoko Plan Nazionalen jasotzen diren jarduketak.

Zehazki, proiektu hau jasotzen duen Donostiako Udaleko Enogastronomia JTIP plana Kontseiluaren Egikaritze Erabakiaren 218. helburuan kokatzen da, Jomugetan Jasangarritasun Turistikoko Planetarako aurrekontuak esleitzeari buruzkoa, eta 220. puntuan, Jomugetan Jasangarritasun Turistikoko Planak finantzatzeari buruzkoa, eta 221. puntuan, Jomugetan Jasangarritasun Turistikoko Planak finantzatzeari buruzkoa.

4.- Laguntza horien azken hartzaile guztien kasuan, ekonomia-jarduera burutzen duten pertsona fisikoak (Autonomoak) zein pertsona juridikoak, laguntzen emakida Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan (EB) ezarritako betekizun eta mugen mende dago, aplikagarri izan litezkeen zuzenbide nazionalako zein Europar Batasuneko gainerako xedapenen kalterik gabe, zehazki Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa egikaritu eta kudeatzearen esparruan onartzen direnak, esate baterako, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana. Horrela, azken hartzaile bakoitzari eman ahal zaion minimis laguntzen zenbateko osoa ezingo da 300.000 eurotik gorakoa izan hiru zerga-ekitaldiko edozein eperen barruan. Ondorio horietarako, araubide horren mende daudenek jasotako laguntzen berariazko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute hiru zerga-ekitalditan (uneko zerga-ekitaldia eta aurreko bi zerga-ekitaldiak, kontakatarako laguntza onartu zen unea hartuz) dagokion muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez.

Onarpenaren ebazpenean dirulaguntzaren baliokide den zenbatekoaren berri emango zaio onuradunari, minimis laguntzen mugari so.

5.- Dirulaguntza-ildo hau Donostiako Udalaren eta erakunde instrumental hauen: Kirol Udal Patronatua, Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoa eta Donostiako Sustapena SA 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasotzen da, 2024ko martxoaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarrak onartua, dirulaguntza honi dagokion Planaren fitxan zehaztutako helburu estrategiko eta espezifikoak lortzen lagunduz. Honatx horiek:

Helburu estrategikoa: 13. Berrikuntza, ekonomia eta enplegua bultzatzea.

Helburu espezifikoak: Aisia eta turismoaren sektoreko enpresei, beren lehendabiziko urteetan, hazten eta sendotzen laguntzea, sektorearen lehiakortasuna bultzatze aldera.

2. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN XEDEA ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN PROGRAMAK

1.- Dirulaguntza hauen xedea da Donostian, enogastronomiaren esparruan 2020ko urtarrilaren 1etik 2025ko martxoaren 31 bitartean sortutako aisia eta turismoaren sektoreko enpresei sendotzen eta hazten laguntzea.

2.- Bereziki lagunduko zaie, igoera ekonomikoekin edo aparteko zenbatekoekin, honako ezaugarri hauek betetzen dituzten enpresei:

- Enpresak alta emandako unean lan-merkatuan sartzeko zailtasun gehiago dituzten kolektiboek bultzatuak izan direnak: emakumeak, 35 urtetik beherakoak edo 45 urtetik gorakoak.

edota

- Eskeraren unean, hiriko Ekialdeko Distrituan lekututa egotea.

3.- Oinarri hauetan araututako dirulaguntzek HOGEI MILA EUROKO (20.000 €) gehieneko zenbatekoa dute pertsona onuradun bakoitzeko, eta, oro har, laguntzaren intentsitatea diruz lagun daitezkeen gastuen % 100ekoa da.

3. ARTIKULUA. ERAKUNDE KOLABORATZAILEA

1.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Donostia Sustapena udal sozietateak Erakunde Kolaboratzaile izaera izango du Oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzak kudeatzeko, Donostiako Udalaren eta aipatu Erakundearen arteko dagokion Lankidetzahitzarmenean ezartzeko baldintzetan.

2.- Ondorio horietarako, Donostia Sustapenak, dirulaguntzen izapide-egile gisa, "leihatila bakar modura" jardungo du, bai eskaera egiteko, bai dagokion dokumentazioa jaso eta izapidetzeko.

4. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Oinarri arautzaile hauetan ezartzen diren dirulaguntzak, horietan xedatutakoaz zein emakidari dagokion deialdian eta ebazpenean ezarritakoaz gain, honako arau hauetan xedatutakoari jarraikiz arautuko dira:

- 2021/241 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzekoa.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presazko neurriak onartzekoa.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema egituratzekoa.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-egikaritzea eta mugarrak eta helburuak betetzearen jarraipenerako Estatuko Autonomia, Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen duena.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Erregelamendua onartzekoa.
- Laguntzaren Emakidaren Ebazpena, 2022ko abenduaren 19koa, Turismoko Estatuko Idazkaritzarena, Turismoko Arloko Konferentziaren Erabakia

argitaratzekoa, jarduketak finantzatzera bideratutako kreditua banatzeko, eta autonomia erkidegoentzat geratzen den banaketa egiteko, irizpideak ezartzekoa.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez) eta Donostiako Udalaren arteko Hitzarmena, Euskadiko Turismo Iraunkortasuneko Lurralde Planari dagokion Donostiako Turismo Iraunkortasun Plana egikaritzekoa.
- Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planarekin lotutako jarduketa eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-egikaritzea, kudeaketa eta jarraipena egiteari buruzkoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenez (46 zenbakiko EHAA, 2002ko martxoak 4) publiko egina.
- Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 29koa, “Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzeko iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana” onartzekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendariaren apirilaren 6ko 2022 Ebazpenez, aipatu erabakiaren argitalpena ipintzekoa (74 zenbakiko EHAA, 2022ko apirilak 13), publiko egina.

2.- Halaber, aplikagarri izango dira, Donostiako Udalaren iruzurraren aurkako neurrien Plana, plan horretatik eratorritako betebeharrekin batera, 2022ko martxoaren 15eko Tokiko Gobernuaren Batzarreko erabakiz onartua, eta Donostia Sustapenaren iruzurraren aurkako neurrien Plana, Donostia Sustapena, S.A. sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartua.

3.- Era berean, derrigorrez betetzekoak izango dira erakunde onuradunentzat dirulaguntza ematen duen Administrazioak zein maila nazionalako eta Europako eskumeneko gainerako agintaritzek horri dagokionez ezar ditzaketen arauak, eta laguntza horien onuradun izatetik, aipatutako finantzazioaren jatorria dela eta, eratortzen diren betebeharrak.

5 ARTIKULUA.- BALIABIDE EKONOMIKOAK

1.- Oinarri arautzaile hauen babesean ematen diren dirulaguntzak Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduak (EB) ezarritako Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatuko dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen laguntza hauen izapidean eta emakidan Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzeko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa, aplikagarri den gainerako araudiaren kalterik gabe.

2.- Ondorio horietarako, Programa horretara EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EUROKO (150.000 €) guztizko zenbatekoa bideratuko da, enogastronomiaren esparruko aisia eta turismo sektorean enpresa berriak sendotu eta hazteko dirulaguntzen finantzaziora bideratuko dena.

3.- Donostiako Udalak laguntzen Programa honetara bideratutako zenbatekoa edo finantzatzeko eskaeren guztizko kopurua aldatzeko eskubidea gordetzen du. Kasu horretan, publizitatea bermatzeko eta interesa izan dezaketen pertsona guztiek horren berri izatea ziurtatzeko beharrezkoak diren jakinarazpenak eta iragarkiak egingo ditu.

4.- Oinarri hauetan eta deialdian araututako dirulaguntzak egikaritzeko erabilgarri dauden funtsek ez dute etiketatze klimatikorik, ezta etiketatze digitalik ere.

6. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

1.- Laguntzaren pertsona onuradun modura hartuko da, laguntza ematea ekarri zuen jarduera egin behar duen hura, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, betiere, Oinarri hauetan jasotzen diren betekizunak betetzen baditu.

2.- Laguntzen pertsona onuradun izan ahalko dira ekonomia-jarduera bat garatzen duten pertsona fisikoak (autonomoak) edo juridikoak, pribatuak, nazional edota atzerrikoak, eta baita aurrekoen izaerarik gabeko elkarteak ere, Oinarri hauetan ezarritako betekizunak jasotzen dituen ordenamendu juridikoaren arabera modu baliozkoan eratu baldin badira. Kanpoan geratzen dira ondarezko sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 14. artikuluan zehazten direnak.

3.- Oinarri hauetan dagozkion laguntzak eskatzeko beharrezkoak diren betekizunak eta horiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira. Edozein kasutan, Dirulaguntzen Lege Orokorreko (aurrerantzean, DLLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz.

4.- Beraz, ezingo zaie laguntza honako pertsona fisiko edo juridiko hauei eman:

- a) Indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen ez badituzte.
- b) Ebazpen irmoz dirulaguntzak edota laguntza publikoak jasotzeko aukeraren galerarekin zigortuak badaude, edo horretarako ezgaitzen dien legezko debekuren bat badute, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko Legegintzako 1/2023 Dekretuko 23.2 artikuluan xedatzen denaren arabera sexu-arrazoien ondoriozko diskriminazioagatik zigortuak badaude barne; era berean, ezingo dira horien onuradun izan pertsona fisikoak edo onuradunak sexuagatiko diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko

araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso badu kasuan kasuko zehapenean ezarritako aldiak. Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean edukitzeko betebeharrarekin, halakorik ez duten enpresek ere ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso, ezta Estatuak emakumeen eta gizonen berdintasun arloan legeriaz ezarrita dituen baldintzetan sexu-jazarpena, sexu-arrazoiaren ondoriozko jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitu eta hari aurre egiteko neurriak ezarri izana egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresek ere. Laguntza ekonomiko hori eskatzeko interesa duten enpresek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpen bat aurkeztu beharko dute. Dokumentu horri buruzko xehetasunezko azalpena 11. artikuluan ematen da.

- c) Donostiako Udalarekin edota Donostia Sustapenarekin zorrak baldin badituzte.
- d) Aldez aurretik emandako laguntzak, osorik edo zati batean, itzultzeke badituzte, itzultzeko zenbatekoa ordaindu izana egiaztatzen ez den bitartean.

5.- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, interesdunek eskubidea dute jadanik Administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak, edo beste edozein administrazio egindakoak, ez helarazteko. Gainera, administrazio jarduleak aukera izango du dokumentu horiek behatu edo biltzeko, interesdunak horrekiko aurkakotasuna azaldu ezean. Kasu horretan, ziurtagiriak helarazi beharko lituzke.

6.- Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko die eskumeneko herri-administrazioei jarraian adierazten den informazio hau, prozedura hau ebatzi eta ordaintzeari begira:

- Donostiako Udalarekin eta Donostia Sustapenarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (EJZ) historia
- Gizarte Segurantzarekin ordainketa egunean izatearen ziurtagiria.

7. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BETEKIZUNAK

1.- Honako hauek dira, deialdian parte hartzeko, onuradun diren pertsonak betetzeko betekizunak:

- a. Pertsona fisiko edo juridiko pribatua izatea, lanlekua eta ekonomia-jarduera Donostiako udal barrutian kokatuta izatea, eta enogastronomiaren balio-katearen esparruko jarduera garatzea.
- b. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunez, Donostian Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) alta emanda egotea, epigrafe hauetakoren batean:

EJZ	KONTZEPTUA
1681	HOTEL ETA MOTELETAKO OSTATU-ZERBITZUA
1682	OSTATU ETA PENTSIOETAKO OSTATU-ZERBITZUA
1683	FONDA ETA MAIZTER-ETXEETAKO OSTATU-ZERBITZUA
1684	APARTAMENTU-HOTELETAKO OSTATU-ZERBITZUA
1685	HOTELAZ APARTEKO TURISMO-ALOJAMENDUAK
1686	APARTAMENTU PRIBATUEN USTIAPENA
1671	JATETXEA
1672	KAFETEGIAK
1673	KAFETEGI, TABERNAK, JANARIDUNAK ETA JANARI GABEAK
19892	KONGRESUAK ETA ASANBLADAK ANTOLATZEKO ZERBITZUAK
2882	TURISMO GIDAK
2883	TURISMO GIDA INTERPRETEAK

- c. Enpresa sortzean eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan hasierako alta 2020ko urtarrilaren 1etik 2025ko martxoaren 31ra bitartekoa izatea, bi datak barne, eta dirulaguntzaren eskaera egindako egunez aktiboan jarraitzea, eta gutxienez, 2025eko abenduaren 31ra arte.
- d. Enogastronomiaren esparruko aisia eta turismo sektorean enpresa hazi eta sendotzekari begira eragina duen proiektua izatea.
- e. Diruz lagundutako gastua edo inbertsioa Donostiako udal barrutian garatutako proiektura bideratzea osorik.
- f. Pertsona juridikoen kasuan, jarraian zerrendatzen diren betekizunak bete behar dira:

1. Bere aktiboa ez izatea 10 milioi eurotik gorakoa, edo bestela, eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehaztu bezala, 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea.

2. Batez beste, plantillan 50 pertsona baino gutxiago eduki behar ditu. Plantillaren batez bestekoa kalkulatzeko jardun osoko urteko langileak izango dira kontuan. Lanaldi partziala duten langileen kasuan, lan egindako orduen proportzioaren arabera izango da zenbaketa.

3. % 25 edo gehiagoan ez daitezela egon aurreko 1. eta 2. puntuetan aurreikusitako betekizunetakoren bat betetzen ez duten enpresekin partaidetuta, zuzenean edo zeharka.

Entitatea sozietate talde bateko kidea bada, Merkataritza Kodeko 42. artikularen arabera, aurreko 1. eta 2. puntuetan aipatutako magnitudeak talde horretako entitateen multzoari dagozkio.

Aktibo osoa eta eragiketa bolumena kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira Merkataritza Kodeko 46. artikuluan eta kode hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoaren arabera egin beharreko ezabaketak.

2.- Ezingo dute pertsona onuradun izaera izan honakoek:

- a) Fundazio eta Elkarteeak, irabazi asmodunak edo irabazi asmorik gabeak.
- b) Ezingo dira onuradun izan % 25 baino gehiagoan Sektore Publikokoak diren erakundeak (halakotzat ulertuta, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak lekualdatzeko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 3. artikuluan barneratzen diren erakundeak), irabazi asmorik gabeko erakundeak, ondarezko sozietateen edota Elkargo Profesionalen mendeko edo horiek partaidetutako erakundeak.

3.- Donostia Sustapenak, kudeaketan parte hartzen duen Erakunde Kolaboratzaile gisa, oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzea bermatzeko, beharrezkotzat jotako informazio ekarpenak eskatzeko eskubidea gordetzen du.

8. ARTIKULUA. PROIEKTUEN BETEKIZUNAK

1.- Dirulaguntza hauek enogastronomiaren esparruko aisia eta turismo sektoreko enpresak hazi eta sendotzeko proiektuekin lotutako inbertsio eta gastuak laguntzera daude bideratuta.

2.- Proiektuak aisia eta turismo sektoreko enpresak sendotu eta hazteari begira eragina erakusteko gaitasunaren arabera ebaluatuko dira. Dirulaguntza honen xedean laguntzen duten neurri eraginkor eta errealistak dituzten proposamenak egokitzat joko dira, eta helburu horri begira eragin positiboa erakusten dutenak baino ez dira onartuko.

Proiektuak balioespenerako irizpide hauekin bat etorritik ebaluatuko dira:

Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa: proposamen tekniko eta ekonomikoaren kalitate, adierazgarritasun, zehaztasun eta bideragarritasunaren zein deialdiko helbururako egokitzapen-mailaren arabera. Zehazkiago: - Adierazgarritasuna: proiektua deialdiko helburu eta xedeekin bat etortzea modu egokian. (25 puntu) - Zehaztasuna: aurkeztutako proposamenaren, helburuen, testuinguruaren eta premiaren xehetasuna. (25 puntu) - Inpaktua: enpresaren hazkunderako aurreikuspena alderdi ekonomikoari so, eta bezero berriak hautemateari, markari eta	75 puntu
---	--------------------

merkatuko posizionamenduari edota plantillako langile kopuruari so. (25 puntu)	
Enpresaren hazkundeari begira egiteko gastuen balizko eragina: aurrekontu banakatua, gastuaren proportzionaltasuna emaitzarekiko, gobernantza azpikontratazioen kasuan, etab.	20 puntu
Proiektuan genero-ikuspegia txertatzea: proiektua egikaritzen duen plantillari berdintasun arloan gutxienez 2 orduko prestakuntza emateko konpromisoa balioetsiko da.	5 puntu
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA GUZTIRA	100 puntu

Eskaera bati dirulaguntza eman ahal izateko gutxienez 60 puntu lortzea eskatzen da. Beraz, puntuazio horretara iristen ez diren eskaerak baztertu egingo dira.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

9.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.- Laguntzaren zenbatekoa HEMEZORTZI MILA EUROKOA (18.000€) izango da enpresako, eta honako gehigarri hauek aplikatu ahal izango dira, betiere, jarraian adierazten direnetakoren bat betetzen bada: Aipatutako gehigarriak metagarriak dira.

• Gehigarriak egoeretakoren bat betez gero:

a) 1.000 gehiago, enpresako bazkidea den pertsonaren batek kolektibo hauetakoren bateko kide izatearen baldintza betetzen badu:

- Emakume ekintzaileak.
- 45 urtetik gorako pertsonak
- 35 urtetik beherako pertsonak

Azaldutako kolektiboetako bateko kidea izatea justifikatze aldera, enpresaren sorrera-data hartuko da erreferentzia gisa. Aurreko puntuetan deskribatzen diren kolektiboetako bat baino gehiagoan kide izatea ez da metagarria gehigarri horri dagokionez, eta horrenbestez, egoeretako bakarra egiaztatu beharko da.

b) 1.000 euro gehiago enpresaren lanlekua, eskaera egin den egunez, hiriko Ekialdeko Distrituan lekutzen bada.

2.- Laguntzaren zenbatekoaren gehienezko intentsitatea, oro har, **diruz lagun daitezkeen gastuen % 100ekoa** izango da, aurkeztutako eskaera bakoitzeko HOGEI MILA EUROKO (20.000 €) gehienezko zenbatekoa gainditu gabe.

3.- Ordaindutako zenbatekoak ez du sekula oinarri hauetan ezarritakoarekin bat etorritz aurkeztu eta justifikatutako gastu edo inbertsioaren zenbatekoa gaindituko.

4.- Justifikatutako gastu guztiak dirulaguntza justifikatu aurretik ordaindu beharko dira.

5.- Soilik txartelarekin, banku-transferentzia bidez edo helbideratuta egindako ordainketen ordainagiriak onartuko dira. Ordainagiri horietan egindako eragiketari buruzko informazioa zehaztu beharko da (Onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data, etab.). Ez da banku-mugimenduen zerrendarik onartuko, eta BIZUM bidez egindako ordainketak ere ez.

6.- Donostiako Udalak dirulaguntza bakarra onartu ahal izango du pertsona onuradun bakoitzeko.

9.2. Diruz lagun daitezkeen gastuak

1.- Diruz lagun daitezkeen gastu modura onartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak zalantzarik gabe, oinarri arautzaile hauetan ezarritako epean egiten badira.

1.AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA, ildo hauetan:

- BERRIKUNTZA GASTRONOMIA-ZERBITZU ETA -PROPOSAMENEAN: Laguntza eskatu ahal izango da, proposamen gastronomikoa garatzeko aholkularitza eta laguntza kontzeptuan, eta baita ekonomia-jarduerarekin lotuta beharrezkoak diren inbertsioetarako ere.
- FINANTZAZIOA LORTZEA: Laguntza kanpoko aholkularitza kontzeptuan edo enpresa merkatuan hazi eta gorantz joatea ahalbidetzen duen finantzazioa lortzearekin lotutako inbertsioen kontzeptuan eskatu ahal izango da.
- DIGITALIZAZIO ARLOKO HOBEKUNTZA: Laguntza eskatu ahal izango da digitalizazioa hobetzeko aholkularitza eta laguntza kontzeptuan, eta baita ekonomia-jarduerarekin lotuta software zein hardware arloan beharrezkoak diren inbertsioen kontzeptuan.
- MERKATU BERRIEN GARAPENA: Laguntza eskatu ahal izango da merkatu berrien garapenerako aholkularitza eta laguntza kontzeptuan. Aholkularitzaren gastuekin zerikusia duten kostu guztiekin batera merkatuaren garapenerako plan bat erantsi beharko da, eta aurkeztutako gastuekin koherentzia mantendu beharko da.

2. INBERTSIOAK

- ONDASUNAK EDOTA EKIPAMENDUAK ESKURATZEA: Laguntza eskatu ahal izango da produktu, zerbitzu eta prozesuetan hobekuntza adierazgarriak txertatzera

bideratutako ondasun edota ekipamenduak eskuratzeko gastuen kontzeptuan, eta baita produktuak eta prozesuak garatu, gaineratu edo hobetzearekin hertsiki lotuta daudenetan eta produktu berriak gaineratu edo egungo produktu eta prozesuak hobetzekoetan.

- **ESPAZIOAK EGOKITZEA:** Laguntza eskatu ahal izango da ekonomia-jarduerarekin lotutako higiezinetan ekipamendu berriak erostetik eratorritako gastuen kontzeptuan.

3. PRESTAKUNTZA

- **PRESTAKUNTZA:** Laguntza eskatu ahal izango da jarduerarekin berarekin eta bazkideen edo langileen trebakuntza profesionalarekin lotutako prestakuntza-gastuen kontzeptuan, prestakuntzaren xedea gaitasunak hobetzea izanik, kanpoan geratzen direlarik norberak tituluak eskuratzeko diren gastuak, bidaia-gastuak, joan-etorriekin lotutakoak, ostatu hartzeari dagozkionak edo edozein dieta motarekin lotutakoak (gosaritarako, bazkaritarako edo afaritarako gastuak).

4. SUSTAPENERAKO EKINTZAK

- **MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO PLANA:** Laguntza eskatu ahal izango da proiektuarekin lotutako komunikazio- eta posizionamendu-gastuetarako. Horien artean publizitate-kanpainak, web-orrialdeen diseinua edota gizarte-sareen diseinua barneratu ahal izango dira.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, inbentarioan sar daitezkeen ondasunak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzearen kasuan, ondasunak dirulaguntza ekarri zuen xede zehatzera bideratu beharko dira, ezingo dena bost urtetik beherakoa izan erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, ezta bi urtetik beherakoa ere gainerako ondasunen kasuan.

2.- Diruz lagun daitezkeen gastuak **egikaritzeko epea** 2023ko irailaren 1etik hasi eta dirulaguntza justifikatzeko data berantiarrenera bitartekoa izango da.

3.- Diruz lagun daitezkeen gastuen eskuratzeko-kostua ezingo da, inolaz ere, izan merkatuko balioa baino handiagoa.

4.- Diruz lagun daitezkeen gastu modura onartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak zalantzarik gabe, oinarri arautzaile hauetan ezarritako epean egiten badira.

5.- Ez dira finantzatzekoak izango hauekin lotutako gastuak:

- Baimen administratiboak, lizentziak, baimenak, abalen edota fidantzen kostua eta isunak.
- Administrazio arloko kudeaketa, kontratazio, kontsulta edo izapideekin lotutako edozein gastu, baimenak edo lizentziak eskuratzeko beharrezkoak izan arren.
- Gastu errepikakorrak edo egiturazkoak, eta zehazki, Herri Administrazioetako langileen gastuak, kontuan izanik Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren Erregelamenduko 5. artikuluan ezartzen denez, Mekanismoari dagokion laguntzak ez dituela ohiko aurrekontu-gastu nazionalak ordeztuko, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.
- Eskatzaileak sinatutako aseguruak.
- Obra egikaritzen den bitartean egiten den zainketa eta segurtasuna, martxan jartzeko egunera arte.
- Edozein kostu finantzario.
- Zigor-isunekin lotutako kostuak, zein prozedura judizialen ondoriozko gastuak.
- Sistema eragile eta bulegotika-aplikazioetara bideratutako lizentziak.
- Administrazioako jarduketara edo gastuekin lotutako edozein eragiketa- eta mantenu-gastu.
- Gauzen bidezko ordainketak.
- Enpresan jarduera ohiko/arruntak egiteko xedez eginak, hots, egungo egoerarekin alderatuz jasangarritasunean hobekuntza adierazgarriarik ez dakartenak.
- Talde bereko enpresen artean garatutako zerbitzuak. Beraz, barneko fakturazioko prozesuak onartu gabe.
- Eguneroko kontabilitate-jarduerak, liburuen edukitza, auditoretza eta zerga-aholkularitza.
- Ohiko material suntsikorren eta bulegoko materialaren erosketak.
- Gastu arruntak eta, bereziki, argia, ura eta komunikazioak (telefonoa eta internet) hornitzekoak.
- Interesak, errekaratuak, zergak eta administratibo-zeapenak.
- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Janari-tiketak, dietak, kilometrajea, gasolina, etab.
- Enpresako langileen soldatak eta ordainsariak.
- Autonomo-kuotatik eratorritako gastuak.

Halaber, Europako Batzordeak, DNSH printzipioarekin bat ez etortzeagatik, ez finantzagarritzat identifikatutako jardueren ondoriozko gastuak ez dira finantzatzekoak izango, Kontseiluaren Egikaritze Erabakiko Eranskinean¹ jasotzen denez. Honako hauek dira: i) erregai fosilekin lotutako jarduerak, horien ondorengo erabilera barne (neurri honen barruan elektrizitatea sortu edota gas naturala erabiliz beroa sortzearekin lotutako proiektuak, zein garraio-azpiegitura eta alboan zeharreko banaketa salbu, "kalte

¹

https://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:4f067743-ceb8-11eb-ac72-01aa75ed71a1.0002.02/DOC_2&format=PDF

adierazgarririk ez sortzeko" printzipioaren aplikazioari buruzko Gida teknikoko III. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte²); ii) Europar Batasuneko isurketa-
eskubideen merkataritza-araubidearen (ESMA) esparruko jarduerak, sorraraziko
ditzuten berotegi-efektuko gas-emisioak egokiak diren erreferentziazko parametroen
azpitik kokatuko ez direla aurreikusten denean; iii) hondakinen zabortegi, erraustegi eta
tratamendu mekaniko eta biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak; eta iv) epe
luzera hondakinak baztertzearen ondorioz ingurumenean kalteak sorraraz ditzaketen
jarduerak.

Maila nazionaleko zein Europar Batasuneko dagokion ingurumen legeria betetzen duten
jarduerak soilik jaso ahal izango dute laguntza.

5.- Diruz lagun daitezkeen gastuetan, berariaz hari helduz, Diru-laguntzen Lege
Orokorreko 31. artikulua izango da aplikagarri.

6.- Diruz lagundutako jarduerak koherenteak izango dira ingurumen-iraunkortasunarekin
eta ekonomia zirkularraren printzipioarekin. Hori dela eta, proposamenetan adierazi
beharko da zer neurri mota sartzan diren honako helburu hauek betetzeko, aplikatzekoa
zaien kasuetan:

- Energia-eraginkortasuneko estandarrak betetzea ekipo elektrikoak eta
elektronikoak erostean.
- Bilgarrien erabilera minimizatzea eta hondakinen kudeaketa egokia egitea,
hondakinen kudeaketari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera, ekipoak,
materialak, altzariak eta abar eskuratuz gero.

10. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN

1.- Oinarri hauetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira helburu berarekin,
edozein administrazioaren edo erakunde publiko zein pribatuaren beste dirulaguntza,
laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin. 2021eko otsailaren 12ko Europako
Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 9. artikuluari
jarraikiz, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzeko inbertsio-
proiektuek laguntzak jaso ditzakete Batasunaren beste programa eta tresna batzuetatik,
betiere, laguntza horrek programa honetako dirulaguntzarekin jadanik finantzatzen den
kostu bera estaltzen ez badu. Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako
laguntzari soberako zenbateko hori kenduko zaio.

2.- Pertsona onuradunak diruz lagun daitezkeen programak finantzatzeko jasotako
laguntza guztiei (Batasunekoak edo bestelakoak) buruzko informazioa eman beharko
dio organo emaileari, betiere, finantzaketa bikoitzaren prebentziorako printzipioa
errespetatuz. Jakinarazpen horretan onarpenaren edo ukapenaren dagokion egiaztatzea
erantsi beharko du.

²

<https://www.boe.es/doue/2021/058/Z00001-00030.pdf>

3.- Oinarri hauetan ezartzen diren laguntzek Minimis laguntzetan Europar Batasunaren Funtzionamendurako Tratamenduko 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 zenbakidun Erregelamenduan (EB) ezartzen diren minimis izeneko arauak beteko dituzte.

4.- Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat etorriz jasotako laguntzaren zenbatekoa ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzeko duen zenbatekoa izan, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batekin batera.

11. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA

1.- Eskaerak aurkezteko epea Oinarri hauek Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratu eta ondoren horien laburpen bat Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta baliabide ekonomikoak agortu arteko izango da, Oinarri hauetako 5. artikuluekin bat etorriz (kasu horretan, Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da), edo, bestela, deialdia itxi arte, **2025eko apirilaren 11n** gertatuko dena.

2.- Eskaerak modu telematikoan aurkeztu beharko dira Donostia Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Edozein informazio edo kontsultarako 943.482800 telefono-zenbakian edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoan artatuko da, azken horretan zera adierazi beharko da: **“Enpresen hazkundera enogastronomia arloan”** Jendaurreko arreta ordutegia Donostia Sustapeneko webgunean adierazitakoa izango da.

3.- Pertsona onuradunek dirulaguntzaren eskaera bakarra egin ahal izango dute.

4.- Interesa duten enpresek bi modalitate dituzte beren eskaera egiteko. Dirulaguntzaren eskaera bakarrik (justifikaziorik gabe) eta dirulaguntzaren eskaera justifikazioaz.

Bi kasuetako edozeinetan, enpresa eskatzaile guztiek honako administrazio-dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

Administrazio dokumentazioa

- 1) **Eskaeraren Eranskina. (1. eranskina).**
- 2) Pertsona fisikoaren kasuan, eskatzailearen **NAN** agiriaren kopia.
- 3) Pertsona juridikoaren kasuan, eskatzailearen **IFK** zenbakiaren kopia eta, hala badagokio, pertsona ahalordearen NAN agiria, ordezkatzeko ahalekin batera.
- 4) Dirulaguntza eskatzen duen pertsona edo erakundearen **“bankuko datuen” eranskina (2. eranskina)**, dagokion banku erakundeak zigilatuta, edo banku agiri baliokidea.

- 5) Datuak laga eta eragindako Herri Administrazioen artean tratatzea onartzeko adierazpena, auditoretza eta funtsen erabileren gaineko kontrola egite aldera, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari buruzko 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2 d) artikuluan eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema egituratzeko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz (**3. eranskina**).

- 6) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen betebeharrak guztiak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. (**4. eranskina**).

Estatuko laguntzen bateragarritasunari eta finantzazio bikoitzaren prebentzioari buruzko adierazpena.

- 7) Pertsona onuradunaren egiazko titulartasunaren identifikazioa. Identifikazio hori 2015eko maiatzaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 Zuzentarauko (EB) 3. artikuluko 6. puntuan zehazten den zentzu berean egingo da, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduko 10. artikuluko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22. artikuluari dagokionez ezartzen duen eran (**5. eranskina**).

Edonola ere, instrukzio-argazkiak gaitzen da programan parte hartzen duten pertsonen beren egiazko titulartasunari buruzko informazioa eska diezaien, betiere, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak informazio hori ez badu, eta horrela adierazi badio MINERVA egiaztapen-sistematik eratorritako datuak bandera beltzarekin. Informazio hori instrukzio-argazkiari eman beharko zaio informazioaren eskaera egiten denetik 5 egun balioduneko epearen barruan. Adierazitako epean informazio hori ez helaraztea prozeduratik kanporatzeko arrazoiak izango dira.

Ekonomia-jarduerak garatzen dituzten erakunde onuradunek, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluekin bat etorriz, inskripzioa Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren enpresari, profesional eta atxikitzaileen Erroldan egiaztatuko dute edo Foru Zerga Administrazioaren errolda baliokidean, laguntzaren eskaera-datan garatutako ekonomia-jarduera behar bezala islatu behar duena.

- 8) Deialdi honetako 4. artikuluan, 2. puntuan, jasotako iruzurraren kontrako planak baldintzarik gabe eta inolako erreserbarik gabe onartzearen adierazpena. (**6. eranskina**).
- 9) Administrazioak kanpoko langileen Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEAE) (**7. eranskina**).
- 10) Batzordeari, Iruzuraren Aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (IBEB), Europako Kontuen Auzitegiari, Europako Fiskaltzari eta eskumeneko agintaritza nazionalai

berariazko baimena ematea 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EU) 22.2.e) artikuluan eta Finantza Erregelamenduko 129. artikuluan (2018ko uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendua (EB, Euratom) xedatzen denaren inguruan beren eskumenak erabil ditzaten. (**Eskaera-inprimakia**).

- 11) Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazpena (**8. eranskina**) eta Berdintasun Plana, dagokionean.
- 12) Minimis laguntzen txostena. Honako web-orrialde honetan eskuratzen da: <https://webpub2.igae.hacienda.gob.es/accesoremoto/frmExecAPP.aspx?code=BDNSCRT&TA=ANO>
- 13) «Kalte adierazgarririk ez sortzeko» printzipioa («do not significant harm – DNSH» errespetatzeko konpromisoari buruzko adierazpen arduratsua, pertsona eskatzaileak behar bezala beteta, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 2. artikuluko 6. atalean ezarritakoaren harira, 2021eko apirilaren 27an Ministroen Kontseiluan onartutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoarekin bat etorritik. (**9. eranskina**).
- 14) Finantzazio bikoitzik ematen ez dela baieztatzeko adierazpen arduratsua. (**10. eranskina**).
- 15) **Kolektiboaren egiaztagiria:** Dirulaguntza areagotzeko eskubidea ematen duten betekizunetakoren bat betetzen duen pertsonaren NAN agiria, pertsona eskatzaileaz edo eskaera sinatzen duen pertsonaz apartekoa bada.

Dokumentazio ekonomikoa

A) **A modalitatea: Dirulaguntzaren eskaera soilik** (modalitate honetan, justifikazioa gerora egingo da, oinarri hauetan adierazitako epean, behin gastuak osorik gauzatu ondoren):

Eskaera soilik aurkeztuz gero, artikuluko honetako 4. puntuan aurrez deskribatutako “Dokumentazio Administratiboaz” gain, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. **Memoria teknikoa (11. eranskina).** Dirulaguntzaren xedearen ondorioz egiteko gastu edota inbertsioen xehetasuna, honako informazioa jasoz:
 - a) Egiteko jardueren deskribapen laburra.
 - b) Egindako gastu edota inbertsioak enpresa sendotu eta hazteari dagokionez zer eragin izango duen adierazteko deskribapena.

2. Zerbitzu/produktuaren hornitzaileek egindako **aurrekontua**, diruz laguntzeko jardueraren xehetasunarekin.

3. **Eskaeraren memoria finantzazioa (12. eranskina)**, Excel formatuan.

B) B modalitatea: Eskaera eta dirulaguntzaren justifikazioa unean bertan.
(Baldin eta gastu guztiak gauzatuta eta ordainduta badaude eskaera-egunean).

Eskaera justifikazioarekin batera aurkeztuz gero, artikuluko honetako 4. puntuan aurrez deskribatutako "Dokumentazio Administrazioaz" gain, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- 1) **Justifikazioaren eranskina (13. eranskina)**

- 2) **Emaitzaren memoria (14. eranskina):** programaren bidez abian jarritako proiektu edo jardueraren garapena deskribatzeko, eta egiaz egindako lanari dagozkion emaitzak jasotzen dituen. Hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak egin eta txertatu direla frogatzeko behar adina ebidentzia izan behar ditu, alderdi ezberdinetan izan duen eragin positiboa frogatzeaz batera: ekonomikoa, posizionamendua merkatuan, bezero berriak, produktu berritzailearen beraren garapena, etab.

- 3) **Memoria finantzazioaren Justifikazioa (15. eranskina), Excel formatuan.**

Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data identifikatuta, eta gastuen egiaztagiri guztiak banakatuta edo, horren gabezia, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko aukera ematen duen eta juridikoki baliagarria den beste edozein dokumentu.

- 4) Dirulaguntzaren xedearen **fakturak**. Xehetasunezko fakturak izan beharko dira, eta dirulaguntzaren azken hartzailearen izenean igorri beharko dira, dirulaguntzaren xede diren kontzeptuak identifikatzeko moduan. **Pertsona edo erakunde onuradunak Europako Next Generation funtsen finantzaziorako erreferentzia egin beharko du fakturaren kontzeptuaren hasieran, "Europar Batasuneko Finantzazioa – NextGenerationEU" adierazita.**

- 5) **Egindako ordainketen banku-agiria**

Ordainketa hori aurkeztutako fakturei dagokiola, modu ukaezinean, identifikatzeko aukera ematen duten ordainagiri guztiak onartuko dira. Baliozkotzat joko dira honako hauek identifikatzeko aukera ematen duten ordainagiriak:

- Ordainketa laguntzaren onuradunak egin duela.
- Ordaindutako kopuruak jasotzen dituen hirugarrena.
- Ordainketa-data.

Aurreko ataletan aipatzen den dokumentaziorako dagozkion Eranskinak helaraziko dira, eskaerarekin batera. Eranskinak osorik bete beharko dira. Sinadura behar duen atxikitako dokumentazioak **sinadura digitala izan beharko du**.

5.- Onuradun den pertsonak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa hartzen du beregain.

6.- Donostia Sustapenak oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoa den informazio oro eskatu ahal izango du.

7.- Dokumentazioa aurkezteko epea betetzen ez bada, edo oinarri hauetan aurreikusitako beste edozein betekizun betetzen ez bada, eskaera ezetsi egiten dela ulertuko da.

12. ARTIKULUA ESKAERETAKO AKATSAK KONPONTZEA

1.- Dokumentazio guztia berrikusi ondoren egiaztatzen bada eskaera ez dagoela guztiz beteta, edo dokumenturen bat falta dela, pertsona eskatzaileari eskatuko zaio akatsa konpon dezala edo beharrezkoak diren dokumentuak gainera ditzala HAMAR (10) egun balioduneko epean, halakorik egingo ez balu, bere eskaeran atzera egin duela ulertzen dela adierazita, eta prozedura artxibatu egingo da 39/2015 Legearen 68. artikuluan adierazitako moduan emandako ebazpenaren ondotik.

2.- Akatsak konpontzeko eskatutako dokumentazioa telematikoki aurkeztuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako egiaztagiria, instrukzio-organoak berariaz baimendu ezean.

3.- Dirulaguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituzten pertsona onuradunek HAMAR (10) egun balioduneko epean, jakinarazpenetik zenbatzen hasita, betebeharrak hori egunean izatea egiaztatu beharko dute.

4.- Instrukzio-organoak argibideak eskatu ahal izango ditu, komenigarritzat jotzen badu.

13. ARTIKULUA. INSTRUKZIORAKO ETA EBAZPENERAKO ESKUMENENKO ORGANOAK

1.- Donostia Sustapena izango da laguntza hauen instrukzio-organoa, Donostiako Udalaren Erakunde Kolaboratzailea den aldetik.

Instrukzio-organoak administrazioaren betekizunak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko eta diruz lagun daitezkeen eskaerak balioesteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak egingo ditu ofizioz.

2.- Europako funtsekin egiteko dirulaguntzen berezitasunari so, oinarri arautzaile hauek lehiarik gabeko norgehiagokako dirulaguntza modura izapidetuko dira, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzeko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 62. artikuluan ezartzen den eran, jarduketak beste proposamen batzuekin alderatutako balorazioa eskatu gabe finantzatzea eta emakiden ebazpenak diruz lagun daiteken egoera edo jarduketaren gaineko egiaztapenak egin eta eskatzen diren gainerako betekizunak bete direla egiaztatu ondoren eskaerak aurkeztutako hurrenkeran ematea onartzekoa, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte edo **deialdia itxi arte, 2015eko apirilaren 11n**.

3.- Eskumeneko organoak dagokion ebazpena emango du, gehienez, 4 hilabeteko epean, eskaera egin den egunetik zenbatzen hasita. Gehienezko epea igaro ondoren berriazko ebazpenik eman ez bada, pertsona onuradunek beren eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

Onarpena edo ukapena Tokiko Gobernu Batzordearen berriazko ebazpen arrazoitu bidez egingo da, Tokiko Ekonomia eta Enpleguko zinegotzi delegatuari delegatzeko aukeraren kalterik gabe.

Onarpena edo ukapena banaka jakinaraziko zaie pertsona eskatzaileei, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4.- Onuradunak hautatu eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozeduraren instrukzioak parte hartzen duten pertsonak zein ebazpenerako eskumena duen organoko pertsonak Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) sinatu beharko dute, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskua sistematikoki aztertzeari buruzko urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazitako eran erkatuko direnak.

14. ARTIKULUA. AZPIKONTRATAZIOA

1.- **Diruz lagun daitekeen** gastuaren zenbatekoa **40.000 €tik gorakoa denean** obrako exekuzio-kostuaren kasuan, edo 15.000 €tik gorakoa denean ekipamendu-ondasunak hornitzearen edo aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresen aldetik zerbitzuak ematearen kasuan, erakunde edo pertsona onuradunak **enpresa hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu**, eta justifikatzeko dokumentazioan horien froga utzi beharko da, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa erkatu aurretik, diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri berezien ondorioz merkatuan hornidura edo zerbitzu hori egiteko behar adina erakunde egon ezean, edo gastua eskaeraren aurretik egin ezean.

Onuradunak hirugarrenekin kontratatzen duen diruz lagundutako jarduera diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era artekoa izan ahalko da.

2.- Pertsona edo erakunde onuradunarentzat ezarritako betebeharrak guztiak egikaritzean parte hartzen duten azpikontratista guztiei ere eskatuko zaizkie.

15. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

1.- Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, eta gastu guztiak justifikatu eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

2.- Instrukzio-organoak dirulaguntza Oinarri Arautzailetan jasotako xede edo helburuetara bideratu dela egiaztatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak egingo ditu ofizioz.

3.- Diruz lagun daitezkeen gastu modura onartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak zalantzarik gabe, oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira.

4.- Honako hauek izango dira **justifikazio-epeak**:

B modalitatean egin diren eskaeren kasuan (dirulaguntzaren eskaera eta justifikazioa), eskaerarekin batera justifikazioa aurkeztu beharko da.

A modalitatean egin diren eskaeren kasuan (justifikazioa beranduago eginez), dirulaguntza horiek justifikatzeko epea **2025eko irailaren 30era** bitartekoa izango da. Kasu horretan, honako hau da pertsona onuradunak dirulaguntza justifikatu eta ordaintzeko aurkezteko dokumentazioa:

1) Justifikazioaren eranskina (13. eranskina)

2) **Emaitzaren memoria (14. eranskina)**: programaren bidez abian jarritako proiektu edo jardueraren garapena deskribatzekoa, eta egiaz egindako lanari dagozkion emaitzak jasotzen dituenak. Hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak egin eta txertatu direla frogatzeko behar adina ebidentzia izan behar ditu, alderdi ezberdinetan izan duen eragin positiboa frogatzeaz batera: ekonomikoa, posizionamendua merkatuan, bezero berriak, produktu berritzailearen beraren garapena, etab.

3) Memoria finantzazioaren Justifikazioa (15. eranskina), Excel formatuan.

Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data identifikatuta, eta gastuen egiaztagiria guztiak banakatuta edo, horren gabe, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko aukera ematen duen eta juridikoki baliagarria den beste edozein dokumentu.

4) Dirulaguntzaren xedeari **fakturak**. Xehetasuneko fakturak izan beharko dira, eta dirulaguntzaren azken hartzailearen izenean igorri beharko dira,

dirulaguntzaren xede diren kontzeptuak identifikatzeko moduan. **Pertsona edo erakunde onuradunak Europako Next Generation funtsen finantzaziorako erreferentzia egin beharko du fakturaren kontzeptuaren hasieran, “Europar Batasuneko Finantzazioa – NextGenerationEU” adierazita.**

5) Egindako ordainketen banku-agiria

Ordainketa hori aurkeztutako fakturei dagokiola, modu ukaezinean, identifikatzeko aukera ematen duten ordainagiri guztiak onartuko dira. Baliozkotzat joko dira honako hauek identifikatzeko aukera ematen duten ordainagiriak:

- Ordainketa laguntzaren onuradunak egin duela.
- Ordaindutako kopuruak jasotzen dituen hirugarrena.
- Ordainketa-data.

Egindako gastua justifikatzeko egiaztagiri osagarria eskatu ahal izango da, maila nazionalako edo Europako araudiarekin bat etorritik BEEP planaren esparruan eska daitezkeen beste edozein egiaztagiri edo txostenekin batera.

5.- Dokumentazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira.

6.- Dokumentazio guztia aztertu ondoren, eginaz jasotako zerbitzuak, osorik edo zati batean, onartutako jarduketekin edo justifikatu diren gastuen kontzeptuekin bat ez datozela egiaztatuko balitz, justifikatutako jarduketei dagokion zati proportzionala ordainduko da soilik.

16. ARTIKULUA. JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA

1.- Pertsona onuradunak Administrazio emaileak egiaztapenerako egindako jarduketan, finantzak kontrolatzearekin lotuta, hala badagokio, Kontu-hartzaile Nagusiari dagozkion eta Kontuen Auzitegien legerian aurreikusitakoen mende geratu beharko da, Batzordeak eta Europako Komunitateen Kontuen Auzitegiak, Iruzuraren aurkako Borrokaren Europako Bulegoak, Auditoretzako Bulego Nazionalak eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzak egin ditzaketenen mende egoteaz gain. Horretarako, organo horiei baimena emango zaie dirulaguntzari buruz eskatzen den informazio guztia eskuratzeko, otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.e) artikuluan adierazitako eran.

2.- Edozein kasutan, oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipen, kontrol eta ebaluazioaren mende egongo dira, barneko araudiak eta Europar Batasunak ezarrita, eta derrigorrez aplikatzekoak izanik, Europar Batasuneko Berreskuratze eta

Erresilientzia Mekanismorako informazio eta publizitate, kontrol, egiaztapen, jarraipen, ebaluazio eta gainerako betebeharren arloan ezartzen direnen mende egoteaz gain.

Horretarako, organo horiei baimena emango zaie dirulaguntzari buruz eskatzen den informazio guztia eskuratzeko, otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.e) artikuluan adierazitako eran.

3.- Zehazki, Administrazio emaileek, Berreskuratze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsioko erreformak eta proiektuak gauzatzera bideratutako neurriei dagokienez, auditoretza egin eta funtsen erabilera kontrolatze aldera, datuen kategoria harmonizatuak jasoko dituzte formatu elektronikoan, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2 d) artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritz.

4.- Pertsona onuradunek egiaztagiriak eta finantzazioarekin lotutako gainerako dokumentazioa gorde egin beharko dituzte formatu elektronikoan, bost urteko epeaz saldoa ordaintzen denetik, edo ordainketa hori egin ezean, eragiketarik zenbatzen hasita, edo hiru urteko epeaz dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa denean, uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Erregelamenduko (EB, Euratom) 131. artikuluan aurreikusitako eran («Finantza Erregelamendua»).

Auditoretza, errekurso edota auzien inguruko erregistro eta dokumentuak, nahiz IBEB bulegoaren konpromiso juridikoekin edo ikerketekin lotutako erreklamazioen izapidetzeak gorde egingo dira auditoretza, errekurso, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketak amaituta egon arte. IBEB bulegoaren ikerketekin lotutako erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondotik aplikatuko da.

Erregistroei eta dokumentuei dagokienez, jatorrizkoak zein jatorrizkoen kopia konpultsatutako gordeko dira, normalean onartzen diren datuen euskarrietan, horien artean, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo soilik bertsio elektronikoan dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, jatorrizkoak ez dira beharrezkoak izango, dokumentu horiek jatorrizkoen baliokidetzat eta auditoretzari so fidagarritzat jo ahal izateko aplikagarri diren legezko betekizunak betetzen badira.

17. ARTIKULUA. EZ BETETZEAREN ONDORIOZ AMAITZEA EDO BEHARTUTAKO AMAIERA. ITZULKETA ETA ZEHAPEN-ARAU BIDEA

1.- Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira eta berandutze-interesak eskatuko dira, dirulaguntzaren ordainketatik itzulketa egokitzeak jotzea adosten den egunera arte, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean eta berau garatzeko Erregelamenduan aurreikusitako inguruabarren bat ematen denean, eta baita Oinarri hauetan jasotzen diren egoera espezifikoetan ere.

2.- Itzultzeko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira. Beraz, premiamendu bidean eskatu ahal izango dira, itzulketa ez bada zehazten diren epeen barruan egiten.

3.- Pertsona onuradunak jasoak lukeen ekarpenari dagozkion kopuru guztiak itzuli beharko ditu Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian edota errepikatuan urratuko balitu. Modu adierazkorrean, baina ez mugatzailean, urraketa larri edota errepikatu gisa ulertuko da helarazitako dokumentazio ofiziala faltsutzea, kopia egitea, plagioa egitea edo hirugarren eskubideak urratzea aurkeztutako proiektua aurkeztuz, etab.

4.- Itzulketa ekarriko duen arrazoia izango da ekonomia-jarduerari 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen baja ematea.

5.- Halaber, itzulketa ekarriko duen arrazoia izango da, DNSH printzipioa urratzea.

6.- Itzulketa-prozedura Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 41. artikuluan eta hurrengoetan eta berau garatzeko Erregelamenduko 91. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera garatuko da.

Tokiko Gobernu Batzordea izango da itzulketa adosteko eskumeneko organoa, Tokiko Ekonomia eta Enpleguko zinegotzi delegatuari delegatzeko aukeraren kalterik gabe.

7.- Halaber, aurrez itzulketa egiteko adierazitako arrazoietakoren bat gertatzen baldin bada, era berean, onuradunak, hala badagokio, ordaintzeke leudekeen kopuruak kobratzeko eskubidea galdu egingo litzateke. Orobat, pertsona eskatzailea ezingo da berriro programara aurkeztu.

8.- Arau-hauste eta zehapenen arlo honetan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 56. artikuluan eta hurrengoetan eta berau garatzeko xedapenetan adierazitakoak izango dira jarraitzekoak. Zehapenak ezartzeko erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari.

18. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1.- Pertsona onuradunek Diru-laguntzen Lege Orokorreko 14. artikuluan jasotzen diren betebeharrak hartuko dituzte beregain, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz, betebeharrak hauek aipatzen (modu adierazkor eta ez mugatzailean) direlarik:

- a) Dirulaguntza diruz lagundutako kontzeptuetara bideratzea.
- b) Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa ezarritako moduan eta denboran aurkeztea

- c) Jasotako laguntzak aplikatzea justifikatzeko dokumentuak gordetzea, egiaztatze-edota ikuskatze-jarduketak burutze aldera eta, edozein kasutan, aplikagarri den araudian ezartzen den epean zehar.
- d) Dirulaguntzak barne hartzen dituen jardueren gastu edo diru-sarrerak osorik zenbatzea.
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- f) Laguntzaren xede den jarduera egiteko beharrezkoak liratekeen lizentzia edo baimen guztiak izatea.
- g) Laguntzak emateko kontuan izan den edozein inguruabar, subjektibo nahiz objektibo, aldatu bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea, gehienez, 15 egun naturaleko epean inguruabar hori gertatu den egunetik zenbatzen hasita.
- h) Donostia Sustapenak, emandako laguntzei dagokienez bere zereginak betetzearen harira, eskatzen duen informazio oro helaraztea.
- i) Donostia Sustapenari helburu berarekin jasotako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen berri ematea.
- j) Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin kolaboratzea finantzaren kontrol eta egiaztapenerako burutu ditzakeen esku-hartzeetan, haren eskura eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia ipiniz.
- k) Oinarri hauetako 6., 7. eta 8. artikuluetan adierazitako betekizunak betetzea.
- l) Donostia Sustapenari baimena ematea, enpresen inguruko bere direktorio digitaletan, harremanetarako datuak, jarduerari dagozkion datuak, izen komertziala, logotipoa, marka eta pertsona onuradunak trafiko ekonomikoan erabilitako beste edozein ikur argitara dezan. Horretarako, pertsona onuradunak Donostia Sustapenari elementu horien gainean ustiapenerako lizentzia bat emango dio, ez eskusiboa, adierazitako helburuetara mugatua soilik, eta hark modu baketsuan erabiliko duela bermatuko da. Horrenbestez, Oinarri hauetan zehazki ezarritakoaz aparteko edozein erabilera berariaz baimendu beharko da.
- m) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikaziorako euskarrietan (webguneak, gizarte-sareak, posta elektronikoen bidalketak, megafonia, seinaleztapena, etab.) sustapen eta hedapenerako materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldien hizkuntza erabiltzean, etab.

Pertsona onuradunek aukera izango dute Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari aholkularitza eskatzeko testuen itzulpenak egin eta horiek zuzentzeko (gehienez hilean 1.000 karaktereko itzulpenak, eta zuzenketa kasuan, gehienez 9.000

karaktere), betiere, zerbitzuaren betekizun eta ezaugarriak betetzen badira.
([Http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es](http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es))

- n) Material, euskarri eta espazio guztietan Donostiako Udalaren, Donostia Sustapenaren eta Next Generation EU funtsaren finantza-erakundearen erreferentziak eta logotipoak gaineratzea HFP/1030/2021 Aginduko 9. artikuluan adierazten den eran. Eskaera onartzen den unean, Donostia Sustapenak derrigorrez barneratzeko erreferentziak adieraziko dizkio pertsona onuradunari, besteak beste, tamaina edota kokaera zehaztuz. Honako hauek izango dira derrigorrez gaineratzeko erreferentziak

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan exekutatu eta Europar Batasunaren Next GenerationEU funtsek finantzaturako “Donostia, esperientzia enogastronomia jasangarri eta berritzailea” “Jomugako Turismo Iraunkortasunerako Plana (JTIP) - Enogastronomiako Plan Nazionalea”.



Europar Batasunak
finantzatuta
NextGenerationEU



SECRETARÍA DE ESTADO
DE TURISMO



Berreskuratze,
Eraldaketa eta
Erresilientzia Plana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

- o) Aplikagarri den indarreko araudi guztia errespetatzea, eta bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko Legegintzako 1/2023 Dekretua, besteak beste, pertsonen sexuan zuzenean edo zeharka oinarritutako diskriminazio oro debekatzekoa.

- p) Diruz lagundutako jarduerak sortutako komunikazio oro lengoia inklusiboan egitea, eta erabiltzen diren irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatu eta ez estereotipatua bermatzea.

- q) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik eza bermatzea, eta dirulaguntza ematen duen Administrazioak onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien plana baldintzarik gabe eta erreserbarik gabe onartzea, plan horretako xedapenen mende egonik osorik, eta iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzeari dagokienez Erkidegoko, Estatuko zein Europako araudiak erabat errespetatuz, Europar Batasuneko finantza-interesak babesteari dagokienez bertako instituzioei egiten dituzten adierazpenekin bat etortzeaz gain.

- r) Bermatzea erakundeak badakiela laguntza honen finantzaketa Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanisмотik datorrela, horren ondorioz,



Europar Batasunak
finantzatuta
NextGenerationEU



SECRETARÍA DE ESTADO
DE TURISMO



Berreskuratze,
Eraldaketa eta
Erresilientzia Plana



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BEM mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamendutik (EB) zein finantzaketa horretan aplikagarri diren Erkidegoko edo maila nazionalako gainerako arauetatik eratorritako betebeharrak guztiak beregain hartzen dituelarik. Inguruabar hori adierazpen arduratsu bidez egiaztatuko da.

s) Batzordeari, IBEB bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari berariazko baimena ematea Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. atalak aitortzen dizkien eskubideak erabil ditzaten, eta berreskuratze eta erresilientzia planean jasotzen diren erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken hartzaile guztiak, edo horien aplikazioan parte hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak derrigortzea, eta Batzordeari, IBEB bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari berariazko baimena ematea Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. atalak aitortzen dizkien eskubideak erabil ditzaten, eta funtsen azken hartzaile guztiei antzeko betebeharrak ezar diezazkieten.

t) Horiek identifikatzeko datuak datu-base batean jasotzea, Parlamentuaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.d) artikuluan adierazitakoari jarraikiz

u) Diruz lagundutako jarduketaren fidagarritasunaren eta horiek egikaritzen direla berresteko jarraipena egitearen arduradunak izatea, uneoro jarduketa bakoitzaren lorpen maila zein den jakin dadin. Hirugarrenek garatzeko jarduketaren kasuan, aurreikusitako jarduketak lortzen laguntzea ziurtatzeko zein, hirugarren horiek, hala badagokio, Berreskuratze Planeko adierazlearen, zedarrien eta helburuen balioa zehazteko beharrezkoa izango litzatekeen informazioa helarazten dutela ziurtatzeko mekanismoak ezartzea.

v) Nahasitako Herri Administrazioen arteko datuen lagapena onartzea, aplikagarri den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluekin, osorik, bat etorritik, zeinaren informazioa eskuragarri egon behar baita irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduko 10. artikuluen arabera, eta guztia, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.d) artikulua garatuz.

2.- Gainera, erakunde onuradunek Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaziori buruzko Europako betebeharrak eta betebeharrak nazionalak bete beharko dituzte. Horri dagokionez, zera aintzatetsi beharko dute:

a) Diruz lagundutako jarduketak diseinatu eta egikaritzean, erakunde onuradunek “kalte adierazgarriarik ez sortzeko” printzipioa (edo ingelesezko ikurren arabera, “DNSH”, hots, Do Not Significant Harm) errespetatzea bermatu beharko dute, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (BEEP), Berreskuratze eta

Erresilientzia Mekanismoa eta berau garatzeko araudia ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduan (EB) aurreikusitakoa betez, zehazki, inbertsio jasangarriak ahalbidetzeko esparrua ezartzeari buruzko 2020/852 Erregelamendua (EB), printzipio hori eta Batzordearen Komunikazioa aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen Gisa Teknikoa (2021/C 58/01), eta Espainian Berreskuratze eta Erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Egikaritze Erabakian eskatzen dena betez. Laguntza xede diren proiektu guztiek, proiektuak diseinatu, egikaritu eta justifikatzeko fase guztietan, eta jarduketa bakoitzerako modu indibidualean, ingurumenean kalte adierazgarri ez sortzeko printzipio izeneko (ingelesezko ikurretan DNSH printzipioa, «Do No Significant Harm») eta klimaren alorreko etiketatze-baldintzak errespetatu beharko dituzte.

«Kalte adierazgarriak ez sortzeko» printzipioaren (DO C 58, 2021.02.18, 1. or.), aplikazioari buruzko Gida Teknikoa osorik betetzea bermatze aldera, jarraian zerrendatzen diren jarduerak baztertu egiten dira:

- i) erregai fosilekin lotutako jarduerak, horien ondorengo erabilera barne.
- ii) Europar Batasuneko isurtze-eskubideen merkataritza-araubidearen (ISMA) barruko jarduerak, aurreikusten bada sorraraziko dituzten berotegi-efektuko gas-emisioak egoki diren erreferentziazko parametroen azpitik ez direla kokatuko.
- iii) hondakinen zabortegekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak.
- iv) epe luzera hondakinak baztertzearen ondorioz ingurumena kaltetzea ekar dezaketen jarduerak.

Indarreko araudia betetzeak ez du DNSH printzipioa ebaluatzeko premia salbuesten, eta ez du, berez, jarduketa DNSH printzipioaren arabera denik justifikatzen.

Printzipio hori errespetatzeko betebeharrak orokorraz gain, kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek, neurriak DNSH printzipioari dagokionez izan ditzakeen baldintza espezifikoak bete beharko dituzte. Horrela, birgaitzea, ekipamenduak edota azpiegiturak inplikatzen dituzten JTIP planeko jarduketetarako BEEP planeko 14. osagaiko 8. atalean ezartzen denez (2. azpi-neurria), DNSH printzipioko baldintza espezifiko hauek izango dira kontuan:

«Eraikinak birgaitzean kontuan izango dira eraikinen energia-efizientziari buruzko 2018/844 Zuzentarauan (EB) jasotako jarraibideak, ia energiarik kontsumitzen ez duten eraikinak izan daitezen, berriztagarria ez den lehen mailako energiaren kontsumoa modu esanguratsuan murriztea ahalbidetuz».

Klima-aldaketara egokitzea:

«Birgaitze-neurriek eraikinak klima-aldaketara egokitzen laguntzeko aukera emango dute, aurretiaz dauden eraikinek onartzen dituzten aukeren barruan egokitzapenerako, eta eraikin babestuen kasuan, horiek babesteko, hartu daitezkeen irtenbideen alde eginez, esate baterako, landare-estalkiak, toldoak edota itzaldura-eremuak erabiliz...»

Ur- eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa:

«Ez da aurreikusten neurria kaltegarria izango denik ur eta itsas baliabideen erabilera jasangarriari eta babesari begira. Neurria jomuga turistikoak eta horiek osatzen dituzten enpresak ekonomia zirkularreko, ur baliabideen kontsumoa murrizteko eta natura-baliabideak, bereziki, itsas baliabideak, babesteko estrategietara hobeto egokitzera dago bideratua.

Ur aparatuak instalatzen direnean, Batasunean dagoen produktu-etiketa batekin egongo dira hornituta.

Obraren inpaktua saihesteko, uraren kalitatea mantentzearekin eta uraren estresa prebenitzearekin lotutako ingurumenaren narriadurarako arriskuak identifikatu eta jorratuko dira, uraren erabilera eta babesa kudeatzeko plan bati jarraikiz.

Neurriko inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bat egitea aurreikusten da, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioaren (IIE) Zuzentarauarekin bat etorritik, eta proiektu bakoitzaren diseinuan ur baliabideak modu jasangarrian erabiltzeko beharrezkoak diren arintze-neurri guztiak identifikatu eta islatu dira»

Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena

«(I) Inbertsio honetan aurreikusitako jarduketan barruan sortutako eraikitze- eta eraiste-hondakin ez arriskutsuen (2000/532/EC Erabakiak ezarritako Hondakinen Europako Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala baztertuta) % 70 gutxienez (garrantziari dagokionez), berrerabili, birziklatu eta beste material batzuk berreskuratzeke prestatuko da, beste material batzuk ordeztzeko hondakinak erabiliz betegarriak egiteko eragiketak barne, Europar Batasuneko hondakinen hierarkiarekin eta eraikitze- eta eraiste-hondakinak kudeatzeko Protokoloarekin bat etorritik.

(II) Beharginek hondakinen sorrera mugatuko dute eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan, Europar Batasuneko eraikitze- eta eraiste-hondakinak kudeatzeko Protokoloarekin bat etorritik, eta dauden teknika onenak kontuan izanik eta gaikako eraispina erabiliz substantzia arriskutsuak modu seguruan baztertu eta manipulatzeko aukera izan eta kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapena ahalbidetzeko materialak gaika baztertuz, eraikitze- eta eraiste-hondakinetarako erabilgarri dauden sailkatze-sistemak baliatuz.

(III) Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna ahalbidetuko dute ISO 20887 arauari dagokionez, eraikinen desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna zein, baliabideak erabiltzeko dagokionez, horiek efizienteagoak izateko, zein berrerabilpena eta birziklapena ahalbidetzeko egokitzeko modukoak, malguak eta desmuntagarriak

izateko nola dauden diseinatuta ebaluatzeko».

Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola:

«Ez da espero neurriaren eraginez atmosferara, uretara edo zorura isurpen kutsatzaileak nabarmen areagotzea, izan ere, neurriekin lortu nahi dena, besteak beste, lurraldearen gaineko jardura turistikoaren presioa gutxitzea da, jasangarritasuna ardatz hartuta.

b) Espainiako eta Europar Batasuneko instituzioen kontrol-jardunen mende egongo dira, otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.e) artikuluekin bat etorritik.

c) Beregain hartuko dute dirulaguntza honen barruan burututako jarduketan auditoretza-pista egoki bat mantentzeko eta dokumentazio euskarria mantentzeko betebeharra legez eskagarri den epean zehar.

d) Informazioa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak ezarritako moduan helaraziko da, nazio mailako eta Europar Batasuneko araudiarekin bat etorritik.

e) Dokumentuak formatu elektronikoan mantentzea bost urtez saldoa ordaintzen denetik, edo ordainketa hori egin ezean, eragiketa-egunetik, zenbatzen hasita, edo hiru urtez finantzazioa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, Batasunaren aurrekontu orokorrean aplikagarri diren finantza arloko arauari buruzko 2018ko uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Erregelamenduko (EB, Euratom) 132. artikuluekin bat etorritik.

Auditoretza, errekurso edota auzien inguruko erregistro eta dokumentuak, nahiz IBEB bulegoaren konpromiso juridikoekin edo ikerketekin lotutako erreklamazioen izapidetzeak gorde egingo dira auditoretza, errekurso, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketak amaituta egon arte. IBEB bulegoaren ikerketekin lotutako erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondotik aplikatuko da.

Erregistroei eta dokumentuei dagokienez, jatorrizkoak zein jatorrizkoen kopia konpultsatutak gordeko dira, normalean onartzen diren datuen euskarrietan, horien artean, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo soilik bertsio elektronikoan dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, jatorrizkoak ez dira beharrezkoak izango, dokumentu horiek jatorrizkoen baliokidetzat eta auditoretzari so fidagarritzat jo ahal izateko aplikagarri diren legezko betekizunak betetzen badira.

f) Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema egituratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan ezarritakoari so, BEEP planen ondoriozko funtsen azken onuradunek zein, hala badagokio, azpikontratistek, aplikagarri zaien Europako eta maila nazionaleko araudia bete beharko dute, eta zehazki, BEM mekanismoaren Erregelamendutik eratortzen diren betebeharrak, besteak beste, etiketa digital eta berdeari, kalte adierazgarririk ez sortzeari, interes-

gatazkak, iruzurra eta ustelkeria ekiditeari, finantzaketa bikoitza ez egiteari, Estatuko laguntzen araudia betetzeari, komunikazioari edota datuen transferentziari dagokienez. Halaber, eskaeretan honako erantzukizunpeko adierazpen hauek erantsiko dira: «Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) esku-hartzeak gauzatzearekin lotutako konpromisoaren adierazpena» eta «Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (BEEP) jarduketak egikaritzearekin lotutako datuen lagapen eta tratamendurako adierazpena» eta «Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren (BEEP) jarduerak gauzatzeari dagokionez» eta «Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren (BEEP) jarduerak gauzatzeari dagokionez», baita Europako Parlamentuaren 2021/2021 Erregelamenduaren (EB) 22.2.f) artikulua ere.

g) Kontabilitate-liburuak egunean izatea, horretarako betebeharra dagoenean, eta 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.f) artikuluekin bat etorritz.

h) Diruz lagundutako ondasunaren titulartasuna izatea, dirulaguntza onartzea ekarri zuen helburu zehatzera bideratuz.

i) Auditoretza, errekurso edota auzien inguruko erregistro eta dokumentuak, nahiz IBEB bulegoaren konpromiso juridikoekin edo ikerketekin lotutako erreklamazioen izapidetzeak gorde egingo dira auditoretza, errekurso, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketak amaituta egon arte. IBEB bulegoaren ikerketekin lotutako erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondotik aplikatuko da. Erregistroei eta dokumentuei dagokienez, jatorrizkoak zein jatorrizkoen kopia konpultsatutako gordeko dira, normalean onartzen diren datuen euskarrietan, horien artean, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo soilik bertsio elektronikoan dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, jatorrizkoak ez dira beharrezkoak izango, dokumentu horiek jatorrizkoen baliokidetzat eta auditoretzari so fidagarritzat jo ahal izateko aplikagarri diren legezko betekizunak betetzen badira.

j) Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik eza bermatzea, eta dirulaguntza ematen duen Administrazioak onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien plana baldintzarik gabe eta erreserbarik gabe onartzea, plan horretako xedapenen mende egonik osorik, eta iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, hauteman eta zuzentzeari dagokienez Erkidegoko, Estatuko zein Europako araudiak erabat errespetatuz, Europar Batasuneko finantza-interesak babesteari dagokionez bertako instituzioei egiten dituzten adierazpenekin bat etortzeaz gain.

k) Onuradunak jakinarazi egin beharko dio dirulaguntzak ematen dituen Administrazioari kostu beraren gainean finantzaketa bikoitza egin gabe helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk, beste edozein administraziokoak edo erakunde publiko nazional edo nazioartekoarenak, eskuratu dituen.

- l) Bermatzea erakundeak badakiela laguntza honen finantzaketa Europar Batasuneko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik datorrela, horren ondorioz, BEM mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamendutik (EB) zein finantzaketa horretan aplikagarri diren Erkidegoko edo maila nazionaleko gainerako arauetatik eratorritako betebeharrak guztiak beregain hartzen dituelarik. Inguruabar hori adierazpen arduratsu bidez egiaztatuko da.
- m) Batzordeari, IBEB bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari berriazko baimena ematea Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. atalak aitortzen dizkien eskubideak erabil ditzaten, eta berreskuratze eta erresilientzia planean jasotzen diren erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken hartzaile guztiak, edo horien aplikazioan parte hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak derrigortzea, eta Batzordeari, IBEB bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari berriazko baimena ematea Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. atalak aitortzen dizkien eskubideak erabil ditzaten, eta funtsen azken hartzaile guztiei antzeko betebeharrak ezar diezazkieten.
- n) Horiek identifikatzeko datuak datu-base batean jasotzea, Parlamentuaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.d) artikuluan adierazitakoari jarraikiz
- o) Diruz lagundutako jarduketaren fidagarritasunaren eta horiek egikaritzen direla berresteko jarraipena egitearen arduradunak izatea, uneoro jarduketa bakoitzaren lorpen maila zein den jakin dadin. Hirugarrenek garatzeko jarduketaren kasuan, aurreikusitako jarduketak lortzen laguntzea ziurtatzeko zein, hirugarren horiek, hala badagokio, Berreskuratze Planeko adierazleen, zedarrien eta helburuen balioa zehazteko beharrezkoa izango litzatekeen informazioa helarazten dutela ziurtatzeko mekanismoak ezartzea.
- p) Nahasitako Herri Administrazioen arteko datuen lagapena onartzea, aplikagarri den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta funtsen azken hartzailearen identifikazioa arautzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluekin, osorik, bat etorritik, zeinaren informazioa eskuragarri egon behar baita irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduko 10. artikuluen arabera, eta guztia, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.d) artikulua garatuz.

19. ARTIKULUA. ELKARREN ARTEKO FINANTZAKETA

1.- Laguntza ekonomiko hauek elkarren artean finantzatzekoak izango dira Jomugako Turismo Iraunkortasunerako Plana (JTIP) - **DONOSTIA, AISIA ETA GASTRONOMIAKO ESPERIENTZIA JASANGARRI ETA BERRITZAILEA** proiektuko jardueren barruan, “Donostia, aisia eta gastronomiako esperientzia jasangarri eta berritzailea” “Jomugako Turismo Iraunkortasunerako Plana (JTIP) - 2022ko Turismo Enogastronomikoko Plan

Naziona” izenekoan kokatutako jarduketak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan egikaritua eta Europar Batasunaren (Next GenerationEU) funtsak finantzatuta.

20. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

1.- Datuak babesteko indarreko araudian xedatutakoarekin bat etorriz, Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie dagokion eskaeraren bidez ematen dituzten datu pertsonalak, nahiz helarazten duten edozein dokumentazio, dirulaguntzak izapidetzean edota haiek onartu ondoren haiek kudeatzen diren bitartean, Donostiako Udalak tratatzeko gaineratuko direla, Tratamenduaren Enkargatua izango dena, eta Donostia Sustapenak kudeatuko ditu datu horiek, tratamenduaren enkargatu modura jardungo duena. Tratamenduaren helburua eskaera kudeatu eta aipatu dirulaguntzak izapidetzea izango da.

2.- Tratamendurako zilegitasunaren oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduko (EB) 6.1.e) artikulua da, datu pertsonak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari (DBEO) dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa: tratamendua ezinbestekoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahal publikoak gauzatzean burututako misioa betetze aldera: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa eta 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

3.- Oinarri hauetan edo eskaera egiteko dagozkion inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruzko informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da eta horiek ez emateak edo datu okerrak emateak eskaera kudeatu ahal izatea ekidingo du.

4.- Datuak gorde egingo dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen balizko erantzukizunak erabakitzeko eta datuak tratatu ahal izateko behar den denboraz.

5.- Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradun diren pertsonak emandako datu pertsonalak laguntza horien finantzaketan parte hartzen duten edota horien kudeaketan Donostia Sustapenarekin kolaboratzen duten erakunde nazionalak edo, hala badagokio, nazioz gaindiko erakundeei laga ahalko zaizkie, hori beharrezkoa denean eta soilik emakida kudeatzeko xedez.

6.- Halaber, jakinarazten da dirulaguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazioko datuak komunikatu edo lagatzea, horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren web-orrialdean nahiz Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuz.

7.- Eragindako pertsonak datuak hartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, eta baita datuak babesteko indarreko araudian jasotzen diren bestelako

eskubideak ere, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuaren aurrean (Easo kalea 41, 20006, Donostia).

Eskubideak erabiltzean behar bezala artatua izan ez bada, erreklamazio bat ipini ahalko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua (01008, Gasteiz). Haatik, lehenik eta behin, aukera izango du Donostiako Datuen Babeserako Delegatuaren aurrean erreklamazioa aurkezteko: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, adierazten da dagokion eskaera aurkeztuz eskatzaileak baimena ematen duela berriaz aurreko leerroaldetan adierazitakoaren ondoriozko datuak komunikatu edo lagatzeko.

21. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA SALBUESTEA

- 1.- Interesdunek eskaera aurkeztzen dutenean bertako Oinarriak osorik onartzen dituzte.
- 2.- Pertsona onuraduna izango da dirulaguntzen xede den jardura egitearen aurretiko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal edota material guztien gaineko erantzule bakarra, Donostiako Udala eta Donostia Sustapena kontzeptu horien ondoriozko edozein erantzukizunetik salbuetsita utziz.

Donostian, sinaduraren egunez.